

**Ebazpena: R 84/2023**

**Espedientea: 7/2018**

Vitoria-Gasteizen, 2023ko irailaren 28an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honako hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral batzordeburuak, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Eta hauxe erabaki dute:

### **ERABAKIA**

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) gatazka bat planteatu du Arabako Foru Aldundiaren aurka (aurrerantzean, AFA), ez dagoelako ados ABS jaunak eta CRD andreak zerga-egoitza aldatu izanarekin – 2000ko abenduaren 21ean jarri zen indarrean aldaketa–. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 7/2018 espediente-zenbakiarekin.

### **AURREKARIAK**

**1.-** Ezkontideak diren ABS jaunak eta CRD andreak Araban dute zerga-egoitza aitortua.

**2.-** Beharrezko egiaztapen-jarduketak egin ondoren, 2010eko otsailaren 3an, ZAEAk ezkontideak diren ABS jaunaren eta CRD andrearen zerga-egoitza, 2000ko abenduaren 21etik aurrera, Arabatik Errioxara aldatzeko proposamenak jakinarazi zizkion AFari, baina AFAk ez zuen horri buruzko iritzirik eman.

2011ko maiatzaren 24an, 2011ko azaroaren 2an, 2013ko urriaren 24an, 2014ko otsailaren 26an, 2014ko maiatzaren 28an eta 2017ko azaroaren 13an, proposamen horiek zer egoeratan zeuden jakinarazteko eskatu zion ZAEAk AFARI. Errekerimendu horiei ere ez zien erantzun AFAK.

**3.-** 2018ko otsailaren 19an, ZAEAk Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean planteatu zuen gatazka, eta prozedura arruntari jarraituz izapidetu da. Hori dela eta, BFAk alegazioak egin eta dagozkion frogak eta dokumentazioa hilabeteko epean aurkeztu eta proposatzeko izapidea bete da. Horrez gain, prozedurako interesdun guztiei espedientearen berri eman zaie. Horren emaitza espedientearen dago.

## **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

### **1.- Arbitraje Batzordearen eskumena**

Arbitraje Batzordeak gatazka ebazteko eskumena dauka, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, berari esleitzen baitio eginkizun hau: «Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

### **2.- Epez kanpo egotea**

Gatazka honetan argitu beharreko funtsezko auzia da egokia ote den ezkontideak diren ABS jaunaren eta CRD andrearen zerga-egoitza aldatzea, ZAEAk proposatutako moduan. Hala ere, aldez aurretik, AFAk alegatu duena aztertu behar da; hau da, gatazka epez kanpo planteatu izana ez onartzeko kausatzat har daitekeen. Ordena publikoko gaia denez, Arbitraje Batzorde honek ofizioz azter dezake hori, Ekonomia Itunaren 67. artikuluari jarraituz eta abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Ekonomia

Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Araudiaren (aurrerantzean, EIABA) 17.3 artikuluari jarraituz.

**2.1.-** Auzi hori aztertzeko, Auzitegi Gorenaren 2012ko ekainaren 7ko (ECLI:ES:TS:2012:3838) eta 2013ko urtarrilaren 17ko (ECLI:ES:TS:2013:209) epaietan jasotako jurisprudentziatik abiatu behar da, zeintzuek honako irizpen hauek ezartzen baitituzte:

a.- Gatazka positiboen kasuan bai, baina egoitza-aldaketen kasuan ez dago eskumenen inbasio-jarduerarik, zeinetan EIABAREN 13. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz 2 hilabeteko epe preklusiboan egin behar baita egoitza aldatzeko proposamena.

Auzitegi Gorenak honako arrazoibide hauek hartu ditu oinarritzat ondorio hori ateratzeko:

«Errealitate horren aurrean, ez du zentzurik 15 eguneko epea destino-aldaketaren kasuetan ere aplikatu behar dela eta epe hori preklusiboa dela esateak; izan ere, 43.5 artikuluan adiskidetasunezko prozedura bat aurreikusten da. Prozedura horrek arrakastarik ez badu, Arbitraje Batzordera bideratzen da, pertsona fisiko edo juridiko baten helbidea non dagoen ebatzi dezan. Esan beharra dago Araudiaren arabera Administrazio errekerituak erantzuteko duen bi hilabeteko epea igaro ondoren ez dela beste izapiderik egin behar gatazka planteatu ahal izateko. Beraz, helbidea aldatzeko eskaerak berak, atzera botatzen bada, Arbitraje Batzordean gatazka planteatzeko bidea irekitzen du.

Eskumen-gatazka positiboen kasuan eta zergadunen bizilekuari buruzko gatazketan egoera oso desberdina delako atera da ondorio hori.

Lehenengo kasuan, Administrazio batek uste du beste bat ez dagokion tributuak aplikatzeko eskumen bat erabiltzen ari dela, eta bere iritziz bere eskumena kaltetzen duen egintzaren edo xedapenaren aurka erreakzionatzen du. Logikoa da ulertzea bai aurretiazko errekerimendua egiteko, bai, berariaz edo tazituki baztertuz gero, gatazka aurkezteko epea preklusiboa dela; horrenbestez, betetzen ez bada, ekintza prozesala indargabetu egiten da, epe hori Justizia Auzitegien aurrean errekurtsioak jartzeko ezarritakoekin parekatu behar baita. Bigarren kasuan, egoitza aldatzearen kasuan, abiapuntua ez da Administrazio batek beste bat eskumena erreklamatu erantzutera behartzen duen alde aurreko jarduketa bat, zergadunen egoitzari buruzko desadostasun soil bat baizik. Hori adiskidetasunez konpontzen saiatu behar da eta ados jartzerik ez dagoenean soilik esleitzen zaio Arbitraje Batzordeari desadostasuna ebazteko ardura».

b.- Administrazio hartzaileak 2 hilabeteko epean (orain 4 hilabete) egoitza aldatzeko proposamenari ez erantzuteak isiltasun negatiboa eragiten du, eta administrazio auzi-jartzaileak gatazka planteatu dezake edo berariazko ebazpenaren zain egon.

Auzitegi Gorena honako ibilbide honen bidez iritsi da ondorio horretara:

«Dagoeneko adierazi dugu egoitza aldatzeko proposamenari buruzko erantzuna bi hilabeteko epekan kanpo emateak ez duela garrantzirik.

Gauza bera aplikatu behar zaio gatazka aurkezteko epeari, beraz, ezerk ez du eragozten egoitza aldatzeko proposamena baztertzen duen epekan kanpoko ebazpen baten aurrean Arbitraje Batzordera jotzea hamabost eguneko epekan, hartutako ezespene-erabakia ezagutzen denetik zenbatzen hasita.

Halaber, ezerk ez du eragozten, ezarritako epean erantzunik jaso ezean, aldaketa sustatu zuen Administrazioak egokitzen jotzen duenean, aldaketa-proposamena tazituki ezetsizat jotzea eta gatazka formalki sustatzea, isiltasun negatiboari buruzko araudi orokorra aplikatuta, eta horren kontra ezingo da ukitutako zergadunaren segurtasun-gabezia juridikoa argudiatu; izan ere, ebazpenean izandako atzerapenaren ondorioak, halakorik badago, Administrazio eskudunak praktikatzen duen likidazioarekin lotu beharko dira».

**2.2.-** Auzitegi Gorenaren 2014ko maiatzaren 5eko epaiak (ECLI:ES:TS:2014:1879) zehazten duenez, administrazio hartzaileak egoitza aldatzeko proposamenari ezezko erantzuna emateak hasten du gatazka planteatzeko hilabeteko epe preklusiboa.

Kasu horretan, Ekonomia Itunaren 43.Bederatzi artikulua erantzunaren ondoreak ematen zaizkio administrazioek 2006ko maiatzaren 18an adostutako adiskidetasunezko prozedura dela-eta egindako proposamenari emandako erantzunari (izan ere, Egoitza Aldaketei buruzko Lantaldearen Ondorioen 5.3 apartatuak adierazten duenez, ezezko txostena eginez gero, Ekonomia Itunaren 43.Sei artikuluan aipatzen den bidea irekita utziko da, hau da, gatazka planteatzea. Ondorioz, ez dago benetako alderik Adiskidetasunezko Akordioetan oinarrituta egindako proposamenaren eta Ekonomia Itunaren 43.Bederatzi artikuluan aipatzen den egoitza aldatzeko proposamenaren artean), beraz, gatazka aurkezteko hilabeteko preklusio-epea une horretatik aurrera hasiko da kontatzen.

Epai horretan, inplizituki baieztatzen da erantzunik ezaren aurreko ustezko egintzen (isiltasun negatiboa) araubidea; izan ere, bestela, gatazka planteatzeko

epea zenbatzen hasiko baitzen 2006ko otsailaren 14an egindako hasierako proposamenetik bi hilabetera.

Hala ere, epai horrek prozedurako zergadunarentzat egoitza aldatzearen garrantzia barne hartzen du («Aurrekoa esanda, nabarmendu behar dugu, beste kasu batzuetan egin dugun bezala, zergadunaren zerga-egoitza zehaztea garrantzitsua dela haren zerga-egoerari begira, eta hori Espainiako estatuko zerga-sisteman bereziki garrantzitsua dela, hainbat zerga-araubide desberdin baitaude. Egia da, kasu honetan, esku hartzen duten Administrazioen artean egoitza aldatzeko prozedura baten aurrean gaudela, baina erabakitzen denak erabateko garrantzia izango du zergadunaren zerga-egoitza zehazteko; izan ere, haren zerga-egoera definituko du, bere gain hartu behar dituen tributu zehatzekin lotuta, eta indarrean dauden araubideetako zeinen mende egongo den baldintzatuko du. Hori dela eta, gatazka administrazioen artean planteatzen bada ere, aintzat hartu behar da erabakiak zuzeneko interesa duen zergadunarentzat duen garrantzia. Interesdun hori eskubide eta bermeen hartzekoduna da, eta horien artean, aipatzekoa da bere egoera juridikoa argituta egotea, legez aurreikusitako bideetatik eta epeetan»), baina, esan dugun bezala, «ebazpenean izandako atzerapenaren ondorioak, halakorik badago, Administrazio eskudunak praktikatzen duen likidazioarekin lotu beharko dira».

### **2.3.- Ondorioa.**

Azaldutako guztiagatik, AFAk ez duenez espresuki erantzun, ZAEA bere proposamena isiltasun negatiboagatik ezetsizat jotzeko eta Arbitraje Batzordean gatazka planteatzeko epearen barruan dago, atzerapenak zergapekoari egin nahi zaizkion likidazioetan dituen ondorioak gorabehera.

### 3.- Zergapekoaren zerga-egoitzari buruz

#### 43. artikulua arabera:

«Bat. Ekonomia-itun honetan xedatutakoari begira, pertsona fisiko egoiliarrek ohiko bizilekua Euskadin dutela ulertzeko, ondoren aipatzen diren arauak aplikatuko dira, hurrenez hurren:

Lehenengoa. Lurralde horretan zergaldiko egun gehien egotea, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez; sortzapen-egunaren bezperan amaitzen den aurreko urtebeteko egun gehien egotea, datatik datara zenbatuta, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari eta zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziari dagokienez.

Gainerako tributuei dagokienez, pertsona fisikoen ohiko bizilekua izango da tributuen sortzapen-egunean pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako den bizileku bera.

Lurralde jakin batean egon den denbora zehazteko, aldi batez kanpoan izandako denbora hartuko da kontuan.

Kontrako frogarik ez dagoen artean, pertsona fisiko bat Euskadiko lurraldean dagoela ulertuko da bere ohiko etxebizitza bertan badu.

Bigarrena. Lurralde horretan baldin badu bere interesen gune nagusia; leku hori pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga-oinarriaren zatirik handiena eskuratzen duen lekua da; kasu honetarako, ez dira kontuan hartuko kapital

higigarriak sortutako errentak eta ondare-irabaziak, ez eta gardentasun fiskalaren araubidean –profesionala alde batera utzita– egotzitako oinarriak ere.

Hirugarrena. Lurralde horretan baldin badu aitortutako bere azken bizilekua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako.

Bi. Espainiako egoiliarrak diren pertsona fisikoen kasuan, egutegiko urtean zehar ez badira lurralde horretan ehun eta laurogeita hiru egun baino gehiago egoten, Euskadiko egoiliarrak direla ulertuko da bertan baldin badute enpresa- edo lanbide-jardueren edo interes ekonomikoen gune nagusia edo oinarria.

Hiru. Legez banandu gabe dagoen ezkontideak eta haren mende dauden adin txikiko seme-alabek ohiko bizilekua Euskadin izateagatik pertsona fisiko bat Espainiako egoiliartzat jotzen baldin bada, pertsona fisiko horrek ohiko bizilekua Euskadiko lurraldean duela ulertuko da.

Lau. Ekonomia-itun honen ondorioetarako, jarraian aipatuko direnek zerga-egoitza Euskadin dutela ulertuko da:

a) Ohiko bizilekua Euskadin duten pertsona fisikoak.

(...))»

ZAEAk egindako frogek agerian uzten dute ezkontideak diren ABS jaunaren eta CRD andrearen ohiko bizilekua Logroño dela; izan ere, helbide hori agertzen da zerbitzu-hornitzaileekin egindako kontratuetan; Errioxako Osasun Zerbitzuan, Zergen Zuzendaritza Nagusian eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean agertzen da; horrez gainera, hornidura eta kontsumo handienak han egiten dira; eta, azken batean, ABS jaunak adierazi du senar-emazteen ohiko etxebizitza bizileku horretan dagoela.



Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

### **ERABAKITZEN DU**

1.- Adieraztea ezkontideak diren ABS jaunaren eta CRD andrearen bizilekua Logroñon (Errioxa) dagoela, 2000ko abenduaren 21etik.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Arabako Foru Aldundiari, ABS jaunari eta CRD andreari jakinaraztea.